

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025eko otsailaren 01etik 07arako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/02/05

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 27koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen baita notarioen eta haiek enplegatutako langileen estatuko III. hitzarmen kolektiboa. **2117 xedapena-3 or.**

2025/02/06

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 27koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baitira 2024ko soldata-
taulak, itundu gabeko mailetako langileentzako eta administrazioko eta zerbitzuetako langileentzako ordainsari bakarra, administrazio eta zerbitzuetako langileentzako aldi baterako osagarria, eta guztiz edo partez funts publikoekin sostengatutako irakaskuntza pribatuko enpresen VII. hitzarmen kolektiboan jasotako irteeretarako —gaua barne hartzen dutenatarako— osagarria. **2261 xedapena- 26 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2025/02/03

- **EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA.** Erabakia, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Arrantzako Kontserbak eta Gazituako Hitzarmenaren Batzorde Paritarioaren akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000685011981). **III-15 xedapena- 30 or.**

2025/06/07

- **EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. EUSKO JAURLARITZA (EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako aisia hezitzailearen eta animazio soziokulturalaren hitzarmen kolektiboaren akordioa (soldata-taulak). 319 xedapena- 3 or.

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2025/02/06

- **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako sukaldaritza-arloko enpresen hitzarmen kolektiboaren 2025eko soldataren berrikuspena. 566 xedapena- 2or.

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/02/05

- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Lanbide-heziketa. Antolamendua. 69/2025 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, zeinaren bidez, batetik, Lanbide Heziketaren Sistema Nazionala osatzen duten elementuak eta kudeaketa-tresnak garatzen baitira, eta, bestetik, aldatzen baita 375/1999 Errege Dekretua, martxoaren 5koa Kualifikazioen Institutu Nazionala sortzekoa. 2039 xedapena- 22 or.
- **HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA. Hauteskunde-araubide orokorra.** 1/2025 Jarraibidea, urtarrilaren 30ekoa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, tokiko ordezkaritza-karguak ordezteari buruzkoa. 2042 xedapena- 3 or.
- **HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALA. Hauteskunde-araubide orokorra.** 2/2025 Jarraibidea, urtarrilaren 30ekoa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 27.3 artikulua interpretazioari buruzko apirilaren 28ko 6/2011 Jarraibidea aldatzen duena, hauteskunde-mahaietako presidente- eta bokal-karguetarako eragozpen eta desenkusa justifikatuei buruzkoa. 2043 xedapena- 6 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2025/02/03

- **LEHENDAKARITZA.** HUTS-ZUZENKETA, honako lege honena: 8/2024 Legea, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onesten dituen. **515e xedapena- 1 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2025/02/05

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Bigarren Diputatu Nagusiorde eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 13/2025, Foru Agindua, urtarrilaren 16koa, Aldatzea lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren otsailaren 2ko 55/2022 Foru Agindua, 560 eredua 'Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa' onesten duena, eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzea. **285 xedapena- 10 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO